

ARDI BELTZA URBIAKO LARREETAN

Irati Goikoetxea

Beasain, 14 urte

Jadanik udazkeneko ekinozioaren bihotzean gaude, egunak moztuz doaz eta, aitzitik, gauak geroz eta luzeagoak dira. Eguzkiak, zeruko erregeak, negua gerturatzen doan heinean, indarge, bere izpiak ahulago igortzen ditu. Aldi berean, aspaldi honetan, mendebala lagun duela hego-haizea txistuka dabil inguruak laztanduz. Lurrazala, erreginaren pare, hosto nabarrez osaturiko soineko luze eta zabal batez jantzia da. Oinkada bakoitzeko hostoen kriskitin hotsaz hornitzen da paraje hauetakako une oro.

* * *

Aizkorri mendilerroaren magalean, Aratz, Aloña eta Aketegik, portzelana finez eginiko katilu eder bat osatzen dute, bertako uzta gozoa ardien diti bilakatzen delarik.

– Bbbbeeeee!!!

Duela hiru ordu utzi ditut Gorbeiako larreak eta orain, hementxe aurkitzen naiz leku paregabe honetan ehundaka ardi inguruan ditudala.

– Bbbbeeeee!!!

Bat-batean ardi guztiak niri begira jarri dira, lurrean duten bazkaz erabat ahaztu balira bezala. Arras luzea egin zaidan isilunea hautsi asmoz, honela mintzatu natzaie:

– Zelan zagozie?

Nire galderak ez du erantzunik aurkitu; murmu-

rio ulerkaitz bat baino ez da iritsi nire belarrietara. Hasierako harridura kezka bihurtzen hasia da, ni neu ezezaguna izaki, darabildan hizkera ere ez baitzaie ohikoa gertatuko. Haatik, hizkuntza eskolan izena ematea erabaki dut, bertako euskalkia ikasiz, gure arteko izotzak urtu eta harremanak uztartu asmoz.

Arratsaldeko orduak laburtu nahian, nekeari aurre eginaz inguruko bazterrik galduena ere ezagutzeko parada izan dut. Begiak, gozamenaz loratzen zaizkit naturaren altxor urreztatu honetan.

Eguzkia urrezko maindirean etzatera doanean, zaunka hotsak nire pentsamenduetatik atera eta hankak mugiarazi dizkit. Bultzaka, korrika bizian, artegira heldu gara zakurraren begi eta hagin zorrotzen mehatxupean. Gutxienez hamar bat aldiz ahalegindu naiz lurlean etzaten, baina bakarren bat aurreratzen ez zaidanean, besteren batek hura bere tokia dela ihardesten dit. Azkenean, artegiko leku ilun eta bakartienean amaitu dut, labezomorroen pare.

Eguneko gertakizun eta ongi etorri hotsak abaildurik, betazalak beruna baino astunago ditudala, oharkabean loak atzaparkatu nau ametsik gabeko erreinu zarpailduan.

Goizaldera, eguzkiaren lehen irriarekin batera esnatu naiz. Inguruak lotan darrai. Behin nekeak astinduta, egun berriarekin batera, ni ere pozik, indarberritua aurkitzen naiz. Salto txikika eskolarantz abiatu naiz lehen iladako mahai bat hartu nahian, ikasle asko izaki, azken lerroetatik arbela

ongi ikusi eta irakaslearen azalpenak ongi aditu ezingo ditudan beldurrez. Pizkanaka-pizkanaka ikasgela betez joan da. Irrikaz nago, ezker-eskuin, nor eseriko. Ikasle guztiak sartu dira gelara eta nire harridurarako ez da inor nire alboan eseri. Hain itsusia ote naiz?

Egoera honek ahate itsusiaren ipuina dakarkit gogora. Ahate gaixua! Inguruko harrokeriak eta handi usteak estalia, isolatua. Zergatik baztertu naturak horrelakoa egin bazuen? Zilegi al da halako bereizketak egitea edonoren eskubideak mugatuz?

Bat-batean, barne gogoeta etenaz, irakaslearen ahots leunak alderik alde kilikatu dit bihotza, nire arreta bereganatuz:

– Ez al da inor eseri behar gure adiskide berriaren aldamenean? Aizue! Atzeko aldeko horiek!

– Ez! –denak aho batez– guk ez dugu beltz baten ondoan eseri nahi.

Ezustean harrapatu naute. Nonbait ez nuen horrelakorik espero. Orain garbi ikusten dut ardi hauen jokabidearen zergatia. Jakina, ahazturik nuen ikatza bezain beltza naizela esatea. Zer egiten du ni bezalako ardi beltz batek ehundaka ardi zuri-
ren artean?

Une mingots hauetan inoiz baino gehiago botatzen ditut faltan nire familia, lagunak... Non ote dira? Egia esan nire jatorriaz apenas gelditzen zait argibiderik; halere, aurrera egin beharrean aurkitzen naiz, nire xedearen hozkadei erantzunez.

Ezer gertatuko ez balitz bezala, irakasleak aurrera jarraitu du deklinabideak azalduz. Azkenik, eus-

kalkien arteko desberdintasunak horrenbestekoak ez direla oharturik, tupustean berpiztu zait itzalia nuen barne bizi-poza.

Hainbat kexuren artean matematikako klaseak txanda hartu dio euskarakoari. Errepasu gisa taulak eta neurriak astinduz, hamaika galdera egin dizkigu. Nire gelakideen amorrurako, atal honetan nire maila altua dela frogatua gelditu da. Jarraian, ariketaren zailtasuna kontuan izanik, inongo irizpiderik gabe, nahi bezala, lauko taldetan jartzeko agindu digu irakasleak.

Une zaratatsu baten ostean, hiru izan ezik (ni barne), gainerako ikaskide guztiak taldeka banatu dira. Tamalez, aurrikusia nuen bezala, beste biek ez dute nirekin lanik egin nahi izan.

Adiskiderik ezean, eta etsipenaren mugan, buru-belarri lanean murgiltzea erabaki dut. Asko kostata, baina azkenean lortu dut buruketaren korapiloa askatzea. Behin amaiturik, hauspoen airea berriztatzekeo premian, lehena izan naiz kanpora irteten.

Hiru orduko eserialdiaren ondoren, hankak luzatzeko beharra sentitu eta batetik bestera ibiliz, larre hauek eskaintzen didaten pastela dastatzeko aukera izan dut, ahuldurak urratutako indarrak, berrituz. Baina lasaitasunak ez du luzaro iraun, arratseko bakea hautsiz, esku artean makila duela artzaina hurbildu baitzait erabat asaldaturik:

- Hi beltz! Hik jan omen ditut nire baratzeko azak!

Berriro ni egiten naute errudun! Nola sinestuko ote du beltz baten sorospenik gabeko hitza?

Ezinbestean eta larridurak kinaturik mihia dantzan hasi zait eztarriko korapiloa askatu nahian:

– Nagusi, ni ez naiz izan, ikasgelatik hona etorri naiz zuzenean.

– Hori ez da besteek esaten dutena! Eta gainera gezurretan! Argi –txakurrari deika– eraman ezazu zigor gelara.

Hau orain arte ezagutu dudan lekurik nardagarriena da. Iluna, txikia, hezea... Ni bezala, askatasuna maite duen batentzat jasangaitza da egoera hau; are gehiago errugabea naizela jakinda. Une honetan arima herratuen antzera sentitzen naiz. Nire barnean senti ditzaket nahigabearen ahotsak: “zuria banintz arazo guztiak akabo, eta errotiarengana joango banintz irinez nire ilea zuriz tintatzeko? Karea lortuko banu, edo nire buruaz beste egingo banu...” EZ! –ezinaren muga gailenduz– Ezin daiteke! Neure osotasunean ez nintzateke neu izango. Nire izaera eta jatorriari eutsiz eta denei neure burua errespetaraziz aurrera egin beharrean nago.

Hirurogei ordu daramatzat infernu honetan, bi ilargi eta erdi. Infernua bai! Hemengo hotzak, –infernua beroarekin irudikatzen bada ere– bakar-dadeak eta mamu-deabruen ziztadek mailukatzen dute ene loa.

Ustekabean, urteetako nekea gainean duela, kirrinka hots herdoilduen artean, atea zabaltzen hasia da egunsenti berantiarrari leku eginaz. Nahiz eta zeruko arraultza gorringoa begietan bortizki barneratu, ez da nahi baino lehenago iritsi ihintzez zilarreztutako une aisiagarri hau.

Orain arte solaskide izan dudana isiltasuna isilduz, ahots ezti eta xume bat entzun da pareta zurrunen atzetik:

– Ikatz, goazen kanpora. Nahiko zigor bada errugabe batentzat.

– Baina, baina, nor da bihotza jauzika eta hitzak dardarka dit eta?

Argi da! Gutxien espero nuen laguna. Txakurraren begiek, uhinik gabeko itsaso zabal bat gorpuztu dute, bere begi-niniek adiskidetasunaren kaira doazen txalupatxoak diruditelarik.

Hitzik tartekatu gabe eta ardi zintzarrien hotsera, eskolaraino iritsi gara. Aurrekoan bezala, lehen iladako eserlekuan jezarri naiz, baina oraingo honetan Argi txakurra lagun dudala. Ez, beste aldean ez da inor eseri, agian bihar...

Burua altxatzeaz batera begi gandotuak itxaropenaren ispilu diren hitz urreztatuetan murgildu dira, arbelean etorkizun oparoa islatuz:

**“ERLIJIO, KOLORE, SEXU, ARRAZA ETA
EDOZEIN ARRAZOIREN GAINETIK, IZAKI
GUZTIAK ASKE GARA JAIOTZEZ, ETA BERDINA
DUINTASUNEZ ETA ESKUBIDEZ”**

Gai hau abiapuntutzat harturik, irakaslearen gonbiteari jarraiki, mahainguru bat egin dugu.

– Bbbbeeee! Elkartasuna, bakea, justizia, adiskidetasuna, maitasuna,...

Gozotasunez zipriztindutako malkoak lore bihurtu dira begi eta ezpainen arteko erretenean.

– Bbbbeeee! Bbbbeeee! Bbbbeeee!